

EDOZER GAUZARI ESATEN ZAIO INSTITUZIO NAZIONALA

Elgeta (2000.12.2)

Lotsagarria..., penagarria da UDALBILTZA bultzatu zutenak ematen ari diren ikuskizuna; baina, itxura batean partiduen arteko liskar bat besterik ez zenak, sekulako abarrotsez iragarri zitzaigun LEHENENGO INSTITUZIO NAZIONALA eratzeko egin zen zinegotzien bilera xume bateko hutsak, gabeziak, ezak utzi ditu begi bistan.

"Batzuek" "besteek" atentatuak ez dituztela gaitzesten arrazoitzat emanek uko egiten diote bilerara joateari. "Besteek", berriz, ahaleginak egiten dituzte "batzuen" jarrera horrek gure Lehenengo Institutuzio Nazionala izan litekeena gabe geratuko garela sinestarazi nahian. Ikuskizun tristea, baina argitzailea. Hasera-haseratik argi geratzen da ez "batzuek" ez "besteek", ez dutela bereganatzen ez gureak diren erakundeen beharra, ez horien izatea bera ere; izan ere, "nazional" hitzak ez du esan nahi lurralde osoko ordezkariak izatea, beste nazio batetik independente, askeak, izatea, baizik. Eta aipatutako taldea osatzen dutenak inolako legitimitate eta baliorik gabeko hauteskunde batzuetan aukeratuak izateaz gain, espaniar edo frantses labeldun partidu politikoen jarraibideen esanetara daude, estatu horiek homologatutako eta diruz lagundutako partidu politikoen pean dihardute, eta areago oraindik, estatu horien estrategia totalitarioetan partaide dira. Gure instituzio politikoak bizirik daude: indartu egin behar dira, garatu, zuzpertz. Zeretik eta legalitate frantses nahiz espainiarretik hasitako berreraikuntza nazionala, ez da bakarrik estrategikoki okerra, gainera kontraesalea da. Ezaugarri horiek dituen prozesu bat "soberanista" hitzarekin mozorrotu nahi izan arren, gure estatuaren suntsipenerako prozesua eta estatu menperatzaileen atzaparretan erortzeko bidea besterik ez da izango.